

1983-VII-29

Bilbon, Bizkaiko Diputazioaren Jauregian, 1983.eko uztailaren 29an ospatu du Euskaltzaindiak arratsaldeko lauretan bere hileroko batzarrea. Patxi Zurikarai, Hezkuntz eta Kultur arduradun den Diputatuarekin batera, L. Villasante, J. Haritschelhar, J. M. Satrustegi eta J. San Martin euskaltzainak eseri dira mahai buruan. Etorri dira, P. Altuna, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra, euskaltzainak. J. A. Arana, R. Badiola, P. Charritton, A. M.<sup>a</sup> Echaide, X. Gereño, J. L. Goikoetxea, M. Itzaina, J. L. Lizundia, J. Oleaga, J. A. Retolaza, K. Rotaetxe, P. Urizarren, J. J. Zearreta eta P. Yrizar euskaltzain urgazleak.

X. Diharce, E. Knörr, P. Larzabal eta L. Mitxelenak ezin etorria adierazi dute.

Aurreko batzar agiria onartu da.

### Goizeko batzarren berri

Hegoaldeko lau ordezkartzetako egoitzak zer egoeran dauden une honetan, aipatu da lehenik. Bilbokoari buruz, besteak beste, Plaza Barriko etxea erosteko hitza baieztu du Diputazioak, orain arte egin ez bada, Torrontegi ikertetzearan erabakiak jaso ez direlako izan dela, aitortuz.

Canada-ko hizkuntz ofizialen Ararteko den Yalden Maxwell jaunaren eskariz, Euskaltzaindiak euskararen arazoak azaldu zizkion bazkari batean. Giro jatorreko harremanak izan ziren eta gogo onez jaso zituen jaun honek gure hizkuntzarekiko kezka. Esker ona agertuz idatzi dio Euskaltzain buruari.

Parisen egitekoa den *Expolangues* izeneko hizkuntzen erakusketan euskara aurkeztea onartu da. Hezkuntz Kontseilaritzari dirulaguntza eskatu zaio.

*Argitalpenak.* Euskaltzaindiaren argitalpen guzien ardura batzorde batek erango du. Erregela berezien beharra agertu du L. Villasante batzorde buruak bere txostenean. Arau nahiko zabalak izango direla eta azken erabakia beti batzordeak hartuko duela, esan da. Erregela hauen proposamen bat prestatzeko eskatu zaie, L. Villasante, J. L. Lizundia, R. Badiola eta J. A. Arana jaunei.

*Lekuko*en egoera eta aurtengo finantziaketa aipatu dira. Aintzin asmoa aurrera doa eta, noski, beteko omen da.

*Pertsona Izendegia*-ri azken begiratua emateko banatu ditu idazkariak hirugarren argitalpenaren zerrendak.

*Udal Izendegia* birrargaratzeko gogoia agertu du Bilboko Aurrezki Kutxa Muzizipalak eta batzordeak, dagoen era berean, osorik ateratzeko ez du eragozpenik ikusten.

*Dialektologia.* Datorren udazkenean Markinan egitekoa den batzarreaz aritu da, gehienik, batzordea. Irailaren 23 eta 24 izango dira lan-egunak. Orain arte egingakoen aurkezpena eta metodologia eritziak bateratzea izango da lehenengo gaia. Gerorako plangintza finkatuko da gero, eta bibliografia zehaztu. Broussainen denborako magnetofoi grabapenak badirela Vienen eta kopiak hartzeaz mintzatu dira batzartuak. Dialektologia lanen ondorenak ateratzeko taldetxo bat izendatu da, Ch. Bidegain, J. M. Etxeberria, J. Haritschelhar eta J. Allières barne direla.

Irailaren 25ean, Markinan bertan, egingo da Euskaltzaindiaren batzarre irekia. Egun horretarako txostengileak eta gaiak aukeratu dira.

### **Txostena**

P. Lafitte euskaltzainak, Albert Leon zenaren oroimenez egin du txostena, eta J. Haritschelhar-ek irakurri du. Albert Leon euskaltzalea Bordelen sortu zen judu familia batean. Sei urteetan itsu gelditurik, istudio haundiak egin zituen eta filosofia irakasle izan zen. Pastoralari buruz egin zuen doktoradutzako tesia. Denbora batez, itsu-mutil izan zuen Lafitte. Etxera joaten zitzaion eskuarteko lanak irakurtzera eta hala jakin zituen haren biziko gauza asko. 1953.ean hil zen.

### **Euskera-ren aurkezpena**

L. Villasante mintzatu da, gero, gerra aurreko *Euskera*-ren birrargitalpena aurkezteko. Hamazazpi ale argitaratu dira oraikoz eta eskerrak bihurtzen dizkie argitaletxeari eta lan horretaz arduratu diren guziei. Ale hauek ikusita, oraiko eta orduko Euskaltzaindiaren artean haserrikerik ez dagoela ikusten dela, esan du. Hasierako ildo beretik doa joera nagusietan gure Erakundea.

J. San Martin arduratu da, gehien bat, argitalpena aurrera ateratzen eta zenbait zehaztasun eman ditu. Aldizkari honen gerra aurreko zabalkundea urria izan zen 250 ale bakarrik ateratzen ziren. Horrek esan nahi du oso gutxi ezagutzen direla Euskaltzaindiaren orduko lanak eta zaila zen gaur eskuratzea. Mila aleko argitalpena egin da orain eta, hauetatik 600, harpidedunentzat. 18 herrialdeetara banatzen dela *Euskera*, adierazi du. Suezian, adibidez, hiru unibersitatara doa. Euskal Herrian euskara ofizialki erakusten den instituto askotan ez dute ezagutzen.

Patxi Zurikarai jaunak Diputadu nagusiaren izenean etorri dela, esan du, eta eskerrak eman dizkio Euskaltzaindiari aurkezpen hau egiteko Bizkaiko Diputazioa aukeratu duelako. Kultur Saileko buru den aldetik, berak euskararen alde jokatu duela beti, aitortu du. Eta azken berri bezala, IKER-3 Bizkaiko Diputazioak ordainduko duela, aditzera eman du.

Besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante  
*Euskaltzainburua*

J. M.<sup>a</sup> Satrustegi  
*Idazkaria*